

## EDESA INDUSTRIAL ETA GEYSERREKO LANGILEEKIN BAT PROIEKTU INDUSTRIALAREN ALDE

Arrasateko EH BILDUK elkartasuna adierazi nahi die Edesa Industrial eta Geysler Gastech enpresetako langileei 141 kaleratze iragarri ostean atzo CNA Group taldeko zuzendaritzak. Berri oso txarra da arrasatearrontzat Garagartzako plantaren itxiera eta bat gatoz langileen demandarekin ekoizpenak bertan jarraitu behar duelako. Lanpostu horien galera kolpea da lehenbizi langileentzat beraientzat eta bigarrenik herriko orainaldi eta etorkizunarentzat. EH BILDUK Arrasaten kalitatezko lanpostuak nahi ditu etorkizunean eta horretarako ezinbestekoa da industria jarduerak sendo egotea.

Arrasateko EH BILDU langileen alboan egongo da instituzioetan eta kalean. Horrez gain lan egingo dugu eragile guztien inplikazioa lortzeko kaleratzeei eta enpresaren proiektu industrialari soluzio ahalik eta hobereana lortu asmoz.